# montaña alavesa

## Un entorno para vivirlo en familia

www.montanalavesa.com



EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

KANPEZUKO ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA
CUADRILLA DE CAMPEZO MONTAÑA ALAVESA



## senderismo

Te proponemos algunas rutas para realizar en familia, grupo de amigos, ... Prepara tu mochila, coge las botas y piérdete por nuestros senderos, aquí te señalamos algunos de ellos:

- Campanas de Arburu (Maestu)
- Senda de la Dormida (Santa Cruz de Campezo)
- Senda Mojón del Avellano (Lagrán)
- Senda Las Rasas (Peñacerrada)
- Senda la Carbonera y caleros (Bernedo)
- Senda Barrancos de Kontrasta (Kontrasta)

Aprovecha y visita el Centro de interpretación del GR-38 Ruta del Vino y el Pescado ubicado en Lagrán. Acceso gratuito.

Más información:
www.montanaalavesa.com
945 41 05 77 / 945 40 54 24

## pesca

Si quieres pasar un rato pescando con los peques, el Lago de Pesca Nusi en Santa Cruz de Campezo, es la opción perfecta.

Allí podrás divertirte en familia pescando tus propias truchas. ¡Eso sí! Después no olvides llevártelas.

¿No dispones de caña? No hay problema, en las instalaciones tienes la posibilidad de alquilar una.

Más información:
Facebook: Lago de pesca Nusi
Tlf.: 683 612 302

## golf

El programa **Bautismo de Golf** te ofrece la oportunidad de conocer los elementos básicos del golf, las bases del movimiento, el juego corto, los diferentes golpes, las reglas... y, además, es una magnífica oportunidad para disfrutar y recorrer en cochecito el campo de golf Izki Golf. Todos tendréis vuestro diploma acreditativo de la jornada.

Edad: A partir de 5 años
Duración de la clase: 90 minutos
Horario: A determinar con el profesor

Más información:
www.izkigolf.eus
945 37 82 62

## bicicleta

Un estupendo y precioso paseo por esta vía verde del ferrocarril vasco navarro que sigue el trazado que realizó el tren, durante 40 años (1927-1967), desde Bergara hasta Estella. En su recorrido podrás disfrutar del paisaje, atravesando bosques y campos de cultivo, pasarelas, túneles iluminados, áreas recreativas y fuentes que nos invitan a hacer un alto en el camino.

En la localidad de Antoñana se ubica la Oficina de Turismo Comarcal y el Centro de Interpretación de La Vía Verde del Vasco-Navarro. Aquí podrás recibir información sobre la Comarca y alquilar bicicletas (de adulto, niño y sillitas portabebés) y bastones de nordic-walking. Entrada al Centro de Interpretación gratuita.

Más información:
www.montanaalavesa.com
945 41 05 77 / 945 40 54 24



## museos

MUSEO ETNOGRAFICO USATXI (PIPAON)
Un entorno mágico donde trasladarse al pasado y conocer como vivían los habitantes de Montaña Alavesa a finales del siglo XIX y principios del s XX. Aprende las costumbres de las gentes de antaño, descubre en primera persona como cocinaban, como eran sus juegos, sus trajes y muchas cosas más.

Horarios:
Sábados y domingo de 12:00 h a 14:00 h.
Para visitarlo en otro momento concertar visita llamando al teléfono 608 395 516

MUSEO AL AIRE LIBRE (PEÑACERRADA)
¿Te apetece conocer un pueblo con gran tradición en la comarca de una forma diferente? Esta es la alternativa perfecta. Mientras recorres el pueblo por su paseo de Ronda y cruzas el Portal Sur con su puerta fortificada y restos de la muralla, te encontraras con el museo etnográfico al aire libre donde se exponen en diversos espacios herramientas y utensilios utilizados en las labores agrícolas en épocas anteriores.



## parque natural

PARQUE NATURAL DE IZKI
Una red de 15 senderos de distinta dificultad y longitud permite al caminante descubrir los bellos parajes de Izki, observar su flora y su fauna, y apreciar las tradiciones y la cultura de los seres humanos que habitaron y habitan este territorio.

Lleva tu propia merienda y relájate en nuestras instalaciones con fuentes, mesas y barbacoa mientras los niños juegan en el área de diversión con columpios.

Más información:
945 41 05 02

## patrimonio

Dejaos seducir por nuestro patrimonio cultural. Edificios y templos escondidos para ser descubiertos y admirados. Piérdete por nuestras villas medievales (Peñacerrada, Bernedo, Lagran, Korres, Antoñana, Santa Cruz de Campezo, San Vicente de Arana y Kontrasta) las cuales conservan restos de aquel pasado histórico: recintos amurallados, pasadizos entre calles, ...,

Ermitas como la Virgen de Peña (Faido), construida dentro de una cueva artificial en la Alta Edad Media. La de Elizmendi (Kontrasta), exhibe en sus muros lápidas y estelas romanas, la de San Juan (Markinez) un gran ejemplar del románico alavés, muy próximo a ella se encuentra un conjunto de cuevas artificiales.

Todo esto al aire libre para que disfrutes de una jornada redonda. Aprovecha después para almorzar en cualquier pueblo de la zona y descubre la gastronomía local.

Señalar que durante todo el año se realizan rutas guiadas y salidas de nordic walking guiadas por Montaña Alavesa.

Para participar infórmate en:
www.montanaalavesa.com
945 41 05 77 / 945 40 54 24



# arabako mendialdea

## Familiartean bizitzeko ingurunea

www.montanalavesa.com



EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

KANPEZUKO ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA CUADRILLA DE CAMPEZO MONTAÑA ALAVESA



## mendi-ibiliak

Familiartean nahiz lagunekin egiteko zenbait ibilaldi proposatzen dizkizugu. Prestatu bizkar-zorroa, jantzi botak eta galdu gure bideetan barrena. Hona hemen batzuk:

- Arburuko kanpaiak (Maeztu)
- Uxerri bidea (Santikurutze Kanpezu)
- Hurritzaren mugarriko ibilbidea (Lagran)
- Rasaseko ibilbidea (Urizaharra)
- Txondorren eta karobien ibilbidea (Bernedo)
- Kontrastako sakanen ibilbidea (Kontrasta)

Bidenabar, hurbildu GR-38 Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidearen Interpretazio Zentrora, Lagranen. Sarrera doan.

Informazio gehiago:
www.montanaalavesa.com
945 41 05 77 / 945 40 54 24

## arrantza

Txikitxoekin arrantzan aritu nahi baduzu, zatoz Arrantza egiteko Nusi aintzirara, Santikurutze Kanpezun.

Primeran pasatuko duzu familiartean amuarrainak harrapatzen. Hori bai! Ez ahaztu ondoren eramatea.

Ez al duzu kanaberarik? Egon lasai, instalazioetan baduzu alokatzeko aukera.

Informazio gehiago:
Facebook: Lago de pesca Nusi
Tlf.: 683 612 302

## golfa

**Golf bataioan** kirolaren oinarrizko elementuak ezagutuko dituzu, bai eta mugimenduaren oinarriak, joko laburra, kolpeak eta arauak ere, besteak beste. Horrez gain, abagune paregabea da Izki Golf zelaian zehar gure auto txikiarekin ibiltzeko. Saioaren diploma eskuratuko duzue.

Adina: 5 urtetik aurrera
Eskolaren iraupena: 90 minutu
Ordutegia: Irakaslearekin zehaztuko da

Informazio gehiago:
www.izkigolf.eus
945 37 82 62



## bizikleta

Osteratxo ederra Vasco-navarro trenbidearen ibilbide berdetik. Trenak 40 urtez (1927tik 1967ra) egindako bidea jarraitzen du ibiliak, Bergaratik Lizarrara, hain zuzen ere. Ibilaldian, aukera izango duzu paisaia miresteko baso, soro, pasagune, tunel argiztatu, atsedenleku eta iturri guztietan zehar. Egin geldialdia, merezi dute eta.

Antoñanan daude Eskualdeko Turismo Bulegoa eta Vasco-Navarro Ibilbide Berdearen Interpretazio Zentroa. Eskualdeari buruzko informazioa jaso dezakezu bertan, baita bizikletak (helduenak, haurrenak zein haurtxoak eramateko aulkiak) eta ibilketa nordikoko makilak alokatu ere. Doan da Interpretazio Zentrorako sarrera.

Informazio gehiago:
www.montanaalavesa.com
945 41 05 77 / 945 40 54 24



## museoak

### USATXI MUSEO ETNOGRAFIKOA (PIPAON)

Iraganera bidaiatzeko ingurune zirraragarria. XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran Arabako Mendialdeko biztanleak nola bizi ziren ikusiko duzu. Ikasi arbasoen ohiturak eta ezagutu lehen eskutik nola prestatzen zuten janaria, nola jolasten ziren, zer-nolako jantziak zituzten eta beste hainbat bitxikeria.

Ordutegiak:
Larunbat eta igandeetan 12:00etatik 14:00etara
Beste noizbait bisitatzeko, eskatu hitzordua
608 395 516 telefono-zenbakian

### AIRE ZABALEKO MUSEOA (URIZAHARRA)

Ohi ez bezala ezagutu nahi al duzu tradizio handiko herri bat? Ez galdu aukera! Herrian zehar Ronda pasealekutik zabiltzala Hego Atariko ate gotortua eta harresiaren hondarrak gurutzatzean, aire zabaleko museo etnografikoa topatuko duzu. Antzina nekazaritza-lanetan erabiltzen ziren tresna eta lanabesak daude ikusgai, hainbat espaziotan.

## natura-parkea

### IZKIKO NATURA-PARKEA

15 ibilbideko sarea, zailtasun eta luzera anitzekoak. Ibiltariak aukera izango du Izkiko paisaia ederrak ezagutzeko, flora eta fauna behatzeko edota lurraldean bizi diren eta bizi ziren gizakien usadioak eta kultura balioesteko.

Eraman zeure askaria eta hartu atseden gure instalazioetan. Iturriak, mahaiak eta barbakoa daude bertan, baita umeentzako jolastokia ere, zabu eta guzti.

Informazio gehiago:
945 41 05 02

## ondarea

Liluratu egingo zaitu gure kultura-ondareak. Ezagutu eta miresteko eraikinak eta tenpluak. Ibili Erdi Aroko herribilduetan barrena (Urizaharra, Bernedo, Lagran, Korres, Antoñana, Santikurutze Kanpezu, Done Bikendi Harana eta Kontrasta) eta ikusi antzinako hondarrak, besteak beste, harresi-barruak eta kaleen arteko pasabideak.

Baita baselizak ere, hala nola Haitzeko Andre Mariaren eliza (Faidu), zeina kobazulo artifizial batean eraiki baitzuten Goi Erdi Aroan. Elizmendikoak (Kontrasta) erromatar hilarriak ditu hormetan. San Joanena (Markiz) arabar erromanikoaren adierazle garrantzitsua da, eta handik hurbil daude kobazulo artifizial batzuk.

Aire zabalean dago hori guztia, primerako eguna igarotzeko. Hartu hamaiketakoa inguruko edozein herritan, eta dastatu tokiko gastronomia.

Urtean zehar, ibilbide gidatuak eta ibilketa nordikoko irteerak antolatzen dira Arabako Mendialdean.

Parte hartzeko, informatu hemen:
www.montanaalavesa.com
945 41 05 77 / 945 40 54 24

